

**2013ko URRIAREN 25eko EZ OHIKO UDALBATZARRA
PLENO EXTRAORDINARIO DE 25 DE OCTUBRE DE 2013**

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE (Iana / trabajo)

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2013-10-25

Ordua: 18:05

Bilera-mota: Ez ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 25-10-2013

Hora: 18:05

Tipo sesión: Extraordinaria, 1ª convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

Lehenbiziko gaia tratatu baino lehen, Alkateak zera erran du:

Oroitarazi die zinegotziei, bera dela hitza eman eta kentzen ahal duena, eta berak isiltzeko eskatzen duenean isildu behar direla.

Ez dela hitz egin behar besteen gainetik bestela berak abisuak emanen ditu.

Lehenengo eguneko bilera lotsagarria izan zen, Juan Losak ez zuen errespetatu besteen hitzak.

Juan Losak: Ezker abertzaleak ere ez.

Antes de tratar el primer tema, la Alcaldesa señala lo siguiente:

Les recuerda a los y las concejales que la facultad de dar y quitar la palabra la tiene ella y cuando les pida que se callen deberán hacerlo.

No deben hablar por encima del resto, en caso contrario, les llamará al orden.

La sesión anterior fue vergonzosa, Juan Losa no respetó la palabra al resto de asistentes.

Juan Losa: La izquierda abertzale tampoco.

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

2013.eko urriaren 8an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Puntu honetan, Juan Losak dio Erregearen argazkia falta dela eta banderak ez daudela jarriak “Sinboloen Legeak” dioen moduan.

Alkateak erantzun dio Erregearen argazkia erori dela eta kristala apurtu.

Juan Losak, berriro, erran du Alkateak ez duela Erregearen argazkia jarri nahi.

Alkateak lehenbiziko abisua eman eta erran dio ez duela hitz egiteko baimena gaiaz aldatzen badu.

Juan Losak jarraitzen du hitz egiten ozenki eta erran du nahi duela aktan jasotzea ez duela Erregearen argazkia jarri nahi “Sinboloen Legearen arabera. Alkateak 2. abisua eman eta erantzun dio ez duela ukorik egiten, aldi berean Erregearen argazkia, kristala apurtua, mahai gainean jarri du adierazteko nola dagoen.

Juan Losak jarraitzen du hitz egiten lehengo moduan Alkatearen abisuei kasu egin gabe, beraz, Alkateak 3. abisua eman eta Plenoen Aretotik alde egiteko agindu dio. Aldi berean, sortutako iskanbilarengatik bilera suspenditu du 18:10etan.

18:18etan Alkateak bilerari berriro hasiera eman dio.

3.- 2014.eko UDAL ZERGEN KARGA/TASAK HASIERA BATEZ ONESTEA.

Alkateak Balore katastral berrieekin eginiko suposaketa batzuk azaldu ditu eta dio hasieran 0,29 tipoa proposatu behar zutela

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

Vista el acta de la sesión celebrada el día 8 de octubre de 2013, por unanimidad SE APRUEBA.

En este punto, Juan Losa dice que falta el retrato del Rey y las banderas no están colocadas según establece la “Ley de Símbolos”.

La Alcaldesa le contesta que la fotografía del Rey se ha caído y se ha roto el cristal.

Juan Losa insiste en que la Alcaldesa se niega a poner el retrato del Rey.

La Alcaldesa le da el primer aviso y le indica que no tiene permiso para hablar si cambia de punto.

Juan Losa continúa hablando en tono elevado y solicita que conste en acta que la Alcaldesa se niega a poner el retrato del Rey “según la Ley de Símbolos”. La Alcaldesa le avisa por segunda vez y manifiesta que no se niega, al tiempo que coloca encima de la mesa el retrato del Rey con el cristal roto para que se vea en el estado en que se encuentra.

Juan Losa sigue hablando del mismo modo sin hacer caso a los avisos de la Alcaldesa por lo que le avisa por tercera vez y le ordena que salga de la sala de Plenos, al tiempo que suspende la sesión, a las 18:10 horas por la alteración producida.

A las 18:18 horas la Alcaldesa reanuda la sesión.

3.- APROBACIÓN INICIAL TIPOS IMPOSITIVOS IMPUESTOS MUNICIPALES AÑO 2014.

La Alcaldesa explica los supuestos calculados con los nuevos valores catastrales y señala que, al principio, iban a proponer un tipo de

baina, agian, batzuentzat igoera gehiegi izango zela, 0,28 tipoa proposatu behar du.

Jose M. Portuk zera dio:

0,25 tipotik 0,28 tipo arte, 0,265ekoa proposatu behar zuten baina ikusirik, Udalari diru-sarrera askoz gutxiago suposatzen zaiola eta zergadunari diru gutxi ados daude 0,28 tipoarekin.

Beste aldetik, "plusbaliak" deitutako zergari katastroko baloreek ere eragina diotenez %10etik (oraingo tipoa) %16ra (izaten ahal den tipoa balore berriei begira) horien arteko bandan, Alkateak %13ra igotzea proposatu du.

Hori dela eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Izanik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikulua araberako Udal zergen karga-tasak aldatzea ondorioak izan behar den urtea hasi baino lehen onetsi behar dela.

ERABAKI DUTE:

- 1) **Lurraldeko kontribuzioari % 0,28ko karga-tasa ezartzea.**
- 2) **Izaera urbanoko terrenoen balio gehikuntzaren gaineko zerga:**
Gehikuntza erreala zenbatekoa finkatzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikulua laukian agertzen diren gutxienezko urteko portzentajeak aplikatzea. Karga-tasa %13a izanen da.
- 3) **Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari % 4,5eko karga-tasa ezartzea.**

0,29 pero, quizás, para algunos supondría demasiada subida, proponen el tipo de 0,28.

José M. Portu manifiesta.

Entre el tipo del 0,25 y 0,28, iban a proponer el del 0,265 pero visto que para el Ayuntamiento supone bastante menos recaudación y al contribuyente le supone poca cantidad están de acuerdo con la propuesta del 0,28.

Por otro lado, como al llamado impuesto de plusvalías también le influyen los nuevos valores catastrales, en una banda entre el 10% (tipo actual) y el 16% (tipo posible según los nuevos valores) la Alcaldesa, propone subir al 13%.

Por lo que, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Siendo que según el artículo 64 de la Ley Foral 2/1995 sobre Haciendas Locales de Navarra, las modificaciones de los tipos impositivos de los impuestos municipales deben ser aprobados antes del inicio del año en que hayan de surtir efecto.

SE ACUERDA:

- 1) Establecer el tipo impositivo del 0,28 % a la Contribución Territorial.
- 2) Impuesto sobre el incremento de los terrenos de naturaleza urbana:
Para determinar el importe del incremento real se aplicarán los porcentajes anuales mínimos del cuadro del artículo 175 de la Ley Foral de Haciendas Locales.
El tipo impositivo será el 13 %.
- 3) Establecer el tipo impositivo del 4,5 % al Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

- | | |
|---|---|
| <p>4) Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga:
1,3 gutxieneko indizea aplikatzea</p> <p>5) Karga-tasa hauek jendaurrean paratzea
30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertze-ko aukera izan dezaten.</p> <p>6) Erreklamaziorik, aitzakiarik edota oharrik egiten ez bada, aipatu denbora pasatu ondotik, aipatu karga-tasak behin betikoz onetsi direla ulertuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.</p> | <p>4) Impuesto de Actividades Económicas:
Aplicar el índice mínimo de 1,3.</p> <p>5) Exponer al público dichos tipos impositivos, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.</p> <p>6) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, los tipos impositivos citados se entenderán aprobados definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.</p> |
|---|---|

3.- BERA ETA LESAKAKO URAREN GOI HORNIDURAKO KONPONBIDE BATERATUA GAUZATZEKO BORONDATEZKO UDAL ELKARTEAREN KOORDINAZIO BATZORDEAN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Aho batez, honako erabaki hartu dute:

Bera eta Lesakako uraren goi hornidurako konponbide bateratua gauzatzeko borondatezko udal elkarte eratzeko hitzarmenari jarraikiz Koordinazio Batzordean Berako Udalaren bi ordezkari izendatu behar dira.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

1) Lehen aipatu den Koordinazio Batzordeko honako ordezkari hauek izendatzea:

- M^a Sol M. Taberna Iratzoki, ordezkaria Jon Abril Olaetxea.
- Jose Manuel Portu Berasategui, ordezkaria

3.- NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES EN LA COMISIÓN DE COORDINACIÓN DE LA ASOCIACIÓN VOLUNTARIA DE MUNICIPIOS PARA LA SOLUCIÓN COMÚN BERA-LESAKA EN EL ABASTECIMIENTO DE AGUA EN ALTA.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

De acuerdo con el convenio para la creación de la Asociación voluntaria de municipios para la solución común Bera-Lesaka en el abastecimiento de agua en alta hay que designar dos representantes para la Comisión de Coordinación.

Por ello, SE ACUERDA:

1) Designar a las siguientes personas como representantes del Ayuntamiento en la Comisión de Coordinación, antes citada:

- M^a Sol M. Taberna Iratzoki, suplente Jon Abril Olaetxea.
- José Manuel Portu Berasategui, suplente

Santiago Alzuguren Machicote.

2) Erabaki hau Lesakako Udalari bidaltzea.

4.- 2013KO AURREKONTUAN KREDITUA HABILITATZEKO ESPEDIENTEA ONESTE, BERA ETA LESAKAKO URAREN GOI HORNIDURAKO KONPONBIDE BATERATUA (13/6 ESPEDIENTEA).

Idazkariak gaia azaldu eta gero, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Kontu-hartzaitzak 2013ko urriaren 21ean egindako txostena, non urte honetarako Udalak onartu duen aurrekontuan 144160100-Solución conjunta Lesaka-Bera- kontu-saila ez da nahikoa “Uraren goi hornidura. Konponbide bateratua Lesaka-Bera. Jarduketa komunak 1. fase”ren obrak burutzeko proiektua kontratatzeke, beraz, kredituak habilitatzeko espedientea onetsi behar dela adierazi duen.

Kontuan hartuz, gastu hau Lesakako Udalak aipatu kontratua egiteko egin beharreko diru ekarpena handiagoarengatik finantzatu dela, espediente honetan diru-sarrerak sortutako kreditua izapidetu behar du Udalak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 218. artikuluei eta indarrean dauden aurrekontuaren 9. eta 13. exekuzio-oinarriari jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) “Uraren goi hornidura. Konponbide bateratua Lesaka-Bera. Jarduketa komu-

Santiago Alzuguren Machicote.

2) Trasladar este acuerdo al Ayuntamiento de Lesaka.

4.- APROBACIÓN DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO EN EL PRESUPUESTO DE 2013, ABASTECIMIENTO AGUA EN ALTA. SOLUCIÓN CONJUNTA LESAKA-BERA (EXPEDIENTE 6/13).

Tras explicar el asunto la Secretaria, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto informe emitido por Intervención de fecha 21 de octubre de 2013 en el que manifiesta que en el presupuesto aprobado para este ejercicio la partida -Solución conjunta Lesaka-Bera- 1441 6010 no tiene crédito suficiente para la contratación de la redacción del proyecto de las obras de “Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase” por lo que es preciso la aprobación de un expediente de modificación de créditos.

Teniendo en cuenta que este gasto se financiará con la mayor aportación a realizar para esta contratación por el Ayuntamiento de Lesaka, en este expediente debe tramitarse un crédito generado por ingresos.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 218 de la Ley Foral de Haciendas Locales y en las bases de ejecución 9ª y 13ª del presupuesto en vigor.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el crédito generado por ingresos debido a la mayor aportación del Ayunta-

nak 1. fasea”ren obrak burutzeko proiektua kontratatzeko Lesakako Udalak jarri beharreko diru ekarpen handiagorengatik diru-sarrera honek sortutako kreditua onestea (13/6 espedientea).

miento de Lesaka para la contratación del proyecto de las obras de “Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase” (6/13 expediente).

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 18:45etan.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 18:45 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
Mª Sol M. Taberna Iratzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta